

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- OHAR OROKORRAK (OO)
- HH OHARRAK (HH)
- LH OHARRAK (LH)
- DBH OHARRAK (DBH)

OHAR OROKORRAK (OO)

OO. LOTERIA

Aurtengoan ere Gabonetako Loteria salmenta martxan jarri du Ikastolak. Txartel bakoitzak 5 Euro balio ditu (4 jokatu eta + 1 Ikastolarentzat). Txartelak astelehenetik aurrera Ikastolako Idazkaritzan jarriko dira salgai eta bertara gerturatu beharko da, txartelak eskuratzeko. Idazkaritzako ordutegia, honako hau da:

astelehenetik – ostegunera: Goizez: 08:30 – 13:00 eta arratsalde: 14:30-18:00. ostiraletan: 08:30 – 17:00. Loteria erosteko **azken eguna, 2019ko abenduaren 13a** izango da.

ZENBAKIA: 72880

OO. MAKETA ERAKUSKETA

Azaroaren 25etik 29ra ikasleek egindako Maketa Erakusketaz gozatzeko aukera izango dugu. 16:30etik 17:30era egongo da zabalik, Ikastolako Plazan.

OO. SEASKA EGUTEGIAK

Urtero bezala, aurrean ere SEASKAko egutegiak iritsi zaizkigula jakinarazi nahi dizuegu. Idazkaritzan erosi ahal izango dituzue 4 euroren truke.

OO. AZAROAK 25

Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna badatorrela eta, hemen duzue emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sinboloa deskargatzeko aukera, puntu lila ([sakatu hemen irudia deskargatzeko](#)). Sinbolo hau publikoki erakusteak berarekin dakar emakume eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen era honetako indarkeriaren kontrako konpromiso aktiboa. Hilabete honetan zehar honen erabilera egin dezazuen eskatzen dizuegu, irudi hau publikoan egitea zuen mezuetan, zuen webguneetan, sare sozialetan, egoitzetan, eskutizetan, eta bururatzen zaizuen leku guztietan.

HH OHARRAK (HH 2 - LH2)

LH 1. KARRANTZARA IRTEERA

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleak **datorren ostiralean, azaroaren 22an, Karrantzara** joango gara. Joan-etorria **autobusez** egingo dugu eta **8:45ean** gelan bildu eta lehenbailehen irtengo gara. Beraz, garaiz iristea eskatzen dizuegu. Ikastolara **17:00ak aldera** bueltatuko gara. Eraman beharrekoak: Eguneko hamaiketako eta bazkaria, ura eta oinetako eta arropa egokia. Bestalde, bidaiaren kostua 23,40 € izango da. Kopuru hau azaroko kuotarekin batera kobratuko zaizue.

LH 2. ERIBERRIRA IRTEERA

Lehen Hezkuntzako 2.mailako ikasleak **azaroaren 21ean Erriberriko gaztelura** joango gara. Joan-etorria autobusez egingo da. Autobusa 9:00etan aterako da, beraz, **9:00etarako autobus geltokian** egon behar da. Ikasleek hamaiketako eta bazkaria eramane beharko dute eta mesedez kontutan izan bertan hotza egiten duela.

Bestalde, bidaiaren kostua eta sarrera 13,30 € izango da. Kopuru hau azaroko kuotarekin batera kobratuko zaizue.

LH 2. JOLASEAN HEZIZ

Urtero bezala, aurten ere, Jolasean Heziz programa eskainiko dugu LH2ko ikasleentzat. Astean behin, 16:45-17:30era, soinketa gelan egingo dugu jolas saioa. DBH-ko ikasleak izango dira begirale eta jolasen dinamizatzaile eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa aurrera eramango dugu.

Helburua, aisialdian, jolasean, gure heziketa osatzea izango da. Taldegiroan jolastu, ondo pasa eta hurrengo urtean hasiko diren eskola kiroletako dinamikak ezagutzen joatea pixkanaka.

Parte hartu nahi duenak, hurrengo astean saioetara etorri besterik ez du. LH2A gelakoek, astearteetan izango dituzte saioak eta LH2B eta LH2C gelakoek asteazkenetan.

LH OHARRAK (LH 3 - 6)

LH-A TALDEKIROLETARAKO JARRERA EGOKIAK

Talde kirolei ekitera goaz. Sarri kirol hauek, helduon eta haurron jarrerarik itsusienak ateratzen dituzte. Hurrengo puntu hauetan arreta jarri. Denon artean eragin behar dugu gure taldeetan jarrera egokiak izan daitezen. Denon ardura da norbere jarrerak zaintzea eta ingurukoenetan eragitea.

Partidua hasi aurretik komenigarria da bi taldeetako entrenatzaile eta epaileak elkartzea eta arauen errepasso bat egitea. Gogoraraziz lagun arteko ekintza bat dela eta elkarri laguntzeko gaudela. Ez elkarren aurka. (gogorarazi maila ezberdinetako kirolarien artean errespetatzea, taldeko gaitasun ezberdinak errespetatzea, gol gehiegiko aldeak ekiditea...)

Helduon ardura da "kirol jardunaldi" hauek "festa jardunaldi" bihurtzea. Beraz, antolatu gurasoen artean, eraman jateko eta edateko zerbait (osasuntsua bada hobe), hamaiketako egin partidua ostean, umorez girotu taldeko dinamikak...

Agindu teknikoak entrenatzaileen ardura dira. Gurasoek soilik animatu eta gauza positiboak esan. Laguntza eta babes gehien behar duten haurrei animatu eta ondo egindako gauzak azpimarratu.

Hotz eta euriarekin, komeni haurrek jarraian jolastea eta behin kanpora ateratakoan arropa aldatzea. Halako kontuak entrenatzaileei gogorarazi edo lagundu antolaketan.

Babestu, lagundu eta mimatu entrenatzaileak. Lan asko egiten dute eta taldekide eta haien gurasoen babesa asko da haientzat. Haiengatik gertu izan eta lagun taldea osatu.

Gol alde handiak ez dira inorentzat laguntza, beraz, gure taldea alde handiz irabazten ari bada, aldatu dinamikak aldeak handiegiak izan ez daitezen.

Lagundu haurrei atek eramaten, jartzen eta kentzen. Lan horiek haien ardura dira. Zuek soilik lagundu, baina lan denak zuek egiten badituzue haien ez dute ikasiko.

LH 5. PLANETARIUMERA IRTEERA

Azaroaren 22an, ostiralean Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin Iruñako Planetariumera joango garela adierazten dizuegu. Joan-etorria **autobusez** egingo dugu eta goizeko ordutegia mantenduko da eta 16:30ak aldera bueltatuko gara. Ikasleek hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute. Bestalde, bidaia eta Planetariumerako sarreraren kostea **13,50 €** izango dela jakinarazten dizuegu. Kopuru hau **azaroko kuotarekin batera** kobratuko zaizue.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)

OO. EXPOSICIÓN DE MAQUETAS

Del 25 al 29 de noviembre tendremos la oportunidad de disfrutar de la Exposición de Maquetas realizadas por los alumnos y alumnas. Estará abierta de 16:30 a 17:30 en la Plaza de la Ikastola.

OO. LOTERIA

Este año se ha puesto en marcha la venta de la Lotería de Navidad. Cada participación cuesta 5 euros (se juegan 4 euros y 1 euro será de ayuda a la Ikastola). Las participaciones se pondrán a la venta únicamente en Secretaría. El horario de secretaría es como sigue:

Lunes - jueves: Mañanas: 08:30–13:00 y Tardes: 14:30 -18:00. Viernes: 08:30–17:00. El último día para adquirir lotería será el lunes, 13 de diciembre de 2019.

NÚMERO: 72880

OO. SEASKA

Como en años anteriores tenemos a la venta en secretaría calendarios de SEASKA al precio de 4 euros.

OO. 25 DE NOVIEMBRE

Con motivo del próximo 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, ponemos a vuestra disposición la imagen del punto lila, símbolo del rechazo a la violencia contra las mujeres ([podéis descargar la imagen aquí](#)). Mostrar este símbolo públicamente implica un compromiso activo contra este tipo de violencia cuyo origen se encuentra en la desigualdad entre mujeres y hombres. Os pedimos que durante este mes hagáis uso del punto lila, mostrándolo, por ejemplo, en los pies de firma de vuestros correos, en vuestras cartas, en vuestras instalaciones, en vuestra web, en las redes sociales y en los lugares que consideréis oportuno.

HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH 2 – LH 2)

LH 1. SALIDA A CARRANZA

Los alumnos y alumnas de 1er curso de Educación Primaria realizaremos **una salida a Carranza el próximo viernes, 22 de noviembre**. Tanto la ida como la vuelta serán en **autobús** y nos reuniremos en el aula a las **8:45** para salir cuanto antes. Por tanto, os pedimos puntualidad. **La vuelta** a la Ikastola será aproximadamente a las **17:00**. Deben llevar: Almuerzo y comida, agua y ropa y calzado adecuado.

Por otra parte, el coste del viaje será de 23,40 €. Esta cantidad se os cobrará con la cuota de noviembre.

LH 2. SALIDA A OLITE

Os informamos que el **próximo jueves, 21 de noviembre**, los alumnos y alumnas de 2º curso de Educación Primaria iremos al **Castillo de Olite**.

Tanto la ida como la vuelta serán en autobús y se mantendrá el horario habitual. Saldremos a las 9:00, con lo que **es necesario que para las 9:00 estéis en la parada de autobús**.

Deberán llevar el almuerzo y la comida para ese día y recordad que se trata de una zona muy fría.

Por otra parte, el coste del viaje y la entrada al castillo será de 13,30 €. Esta cantidad se os cobrará con la cuota de noviembre.

LH 2. JOLASEAN HEZIZ

Un año más, iniciaremos el programa "Jolasean Heziz". Dicho programa trata en una sesión semanal de 45 minutos donde podrán jugar a diferentes juegos y actividades cooperativos. Los de la clase LH2A podrán participar los martes y los de las clases LH2B y LH2C los miércoles. La inscripción la haremos el mismo día de la actividad, la semana que viene.

LH / E. PRIMARIA (LH 3 – 6)

LH 3 – 6 ACTITUDES ADECUADAS EN EL DEPORTE ESCOLAR

Vamos a dedicarnos a los deportes de equipo. A menudo estos deportes sacan las actitudes más feas de los adultos y de los niños y niñas. Centrémonos en los siguientes puntos, que debemos incidir entre todos para que en nuestros grupos haya actitudes adecuadas. Es responsabilidad de todos cuidar las propias actitudes e influir en las más cercanas.

Antes de comenzar el partido es conveniente que los entrenadores/as y árbitros de ambos equipos se reúnan y hagan un repaso de las normas, recordando que se trata de una acción amistosa y que estamos para ayudarnos mutuamente. No es un enfrentamiento. (Respeto entre deportistas de diferentes niveles, respeto a las diferentes capacidades del equipo, evitar diferencias excesivas en goles ...)

Es responsabilidad de los adultos convertir estas "jornadas deportivas" en "jornadas festivas".

Organicémonos entre los padres y las madres, llevar algo de comer y beber (mejor si es sano), hacer un hamaiketako después del partido, ambientar con humor las dinámicas del grupo ...

Las órdenes técnicas son responsabilidad de los entrenadores/as. Los padres y madres solo debemos animar y decir cosas positivas. Animar a los niños y niñas que más ayuda y apoyo necesitan y subrayar las cosas bien hechas.

Con frío y lluvia, conviene que los niños y niñas jueguen de seguido y una vez fuera se cambien de ropa. Recordar este tipo de cuestiones a los entrenadores/as o ayudarles en la organización.

Proteger, ayudar y mimar a los entrenadores/as. Trabajan mucho y el apoyo de sus compañeros/as y padres y madres es importante para ellos/as. Estar cerca y formar un grupo de amigos y amigas.

Las grandes diferencias de gol no son una ayuda para nadie, así que si nuestro equipo está ganando con mucha diferencia, cambiemos las dinámicas para que las diferencias no sean demasiado grandes.

Ayudar a los niños y niñas a llevar, poner y quitar las porterías. Esos trabajos son responsabilidad de ellos/as. Sólo debemos ayudarles, ya que si todo el trabajo lo hacemos nosotros/as, ellos y ellas no aprenderán.

LH 5. SALIDA AL PLANETARIUM

El próximo **viernes, 22 de noviembre**, vamos a ir con los alumnos y alumnas de **5º curso de Educación Primaria al Planetarium de Iruña**. Iremos en autobús, y se mantendrá el horario habitual por la mañana y volveremos hacia las 16:30 h. Los asistentes deberán llevar el almuerzo y la comida para ese día. Por otra parte, el precio del viaje y la entrada al Planetarium será de **13,50 €**. Esta cantidad se cobrará **junto a la cuota de noviembre**.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA